

MUNDUKO ATLASA

Entziklopedia eta Atlas: horra gaurko kulturen erreferentziazko bi obra nagusi. Elkarrekiko beharra dutenak, bestalde, entziklopedia orokor-unibertsala atlas unibertsalari lotuta joan ohi baita gehienetan. Elkarren osagarriak dira. Munduko kulturen eta gaurko eza-gutzaren azalpen organiko-panoramikoa ematen dizu horrelako entziklopediak; informazio entziklopedikoaren kokapen eta ikuspegi geografiko-panoramikoa eskaintzen du atlas orokor-unibertsalak.

Azken urteotan euskaraz argitaraturiko entziklopedia unibertsalen ondoren dator, bada, **Munduko Atlas**a izeneko obra hau, Klaudio Harluxet fundazioak zeure eskuetan jartzen dizuna. Euskarazko kontsulta-materialen alorrean hutsune larri eta premia biziari erantzutera dator gainera, euskal eskolan eta euskaldunaren liburutegian hutsuneak betetzera.

Erreferentziazko baliabideak euskaraz eskaintzeko bere proiektuan urrats berria egin du Klaudio Harluxet Fundazioak **Munduko Atlas**a argitaratzean, euskal hiztegi entziklopedikoa kaleratu ondoren. Entziklopedia hori duenak, erreferentziazko obra osagarri eta baliozkoa aurkituko du hemen; baina entziklopedia hori ez duenak ere kontsulta-tresna osatua eta autonomoa izango du, praktikoa eta erabilgarria, uste dugunez.

Kartografiarekin batera bestelako datuz, kontsulta-baliabidez eta kopuruzko informazio ugariz hornituta dago **Munduko Atlas**a; sailkapen, taula eta konparaziozko diagramez jantzia.

Edukiari eta egiturari begiratuta, badu bestelako berezitasunik atlas honek: beste optika batetik begiratzen zaio munduari. Estatutan dago banaturik eta eraturik mundua, eta atlas unibertsal gehienek estatuen mundu hori deskribatzen dute. Bada, ordea, Herrien mundua ere, estaturik gabekoena, eta estatuen mundua nolabait gaintzen duena. Bi alderdiok erakutsi nahi dizkizu munduko atlasak, Euskal Herritik begiratuta.

Hiru atal nagusi ditu, beraz, **Munduko Atlas**ak. Euskal Herriari buruzkoa lehenengoa; mapa fisiko-politikoz eta estatistika-taulez itxurata. Munduko estatuak biltzen dituena da bigarrena; mundu osoaren eta kontinenteen mapekin batera, estatuz estatuko informazio geografikoz, demografikoz, ekonomikoz eta politikoz tajutua. Eta, azkenik, Estaturik gabeko Herriak plano nabarmenagora ekarri nahi dituena; munduan bizi diren herri eta etnien kokapen eta eremu geografikoa lurraldez lurralde seinalatzearekin batera, horien hiztegi alfabetiko sintetikoak, bakoitzaren historia eta gaurko egoera agertzen duena.

Kontsulta-bideak errazteko eta informazioa zabaltzeko izenen aurkibide bi eskaintzen ditu Munduko Atlasak: Euskal Herriko ataleko toponimoena bata, eta mundu zabalari dagokiona bestea.

7

Euskal Herria

37

Mundua estatuz estatu

38.- Mundua

41.- Kontinenteak

63.- Estatuz estatu

261

Estaturik gabeko herriak

345

Euskal Herriko eta inguruko toponimoen aurkibidea

357

Munduko toponimoen aurkibidea

BIBLIOGRAFIA *Euskal Herriko Atlas*. Donostia, Erein, 1990 • *Euskal Herriko Atlas. Mendiak*. Donostia, Kriselu, 1991 • *Euskal Herriko Atlas. Ibaiak*. Donostia, Kriselu, 1991 • *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia, Klaudio Harluxet Fundazioa, 1995 • *Udal-Adierazleak*. Gasteiz, EUSTAT, 1994 • *Los Países del Mundo. Atlas Alfabético*. Bartzelona, Larousse Planeta, 1994 • *Britannica Atlas. Estatu Batuak*, Encyclopaedia Britannica, 1990 • *Micropaedia Britannica. Estatu Batuak*, Encyclopaedia Britannica, 1990 • *Encyclopaedia Britannica. 1996 Book of the Year. Estatu Batuak*, Encyclopaedia Britannica, 1996 • *The Times Atlas of the World*. Londres, Times Books, 1994 • *El Estado del Mundo. 1997*. Madril, Akal, 1996 • *Atlas Mundial*. Bartzelona, Planeta Agostini, 1987 • *Atlas del Mundo*. Bartzelona, Península, 1996 • *Gran Enciclopedia Larousse*. Bartzelona, Planeta, 1987 • *Dictionnaire Encyclopédique Petit Larousse en Couleur*. Paris, Larousse, 1991 • *Le Grand Robert des Noms Propres*. Paris, Dictionnaires Le Robert, 1989 • Gonen, Amiran. *Diccionario de los Pueblos del Mundo*. Britania Handia, Anaya & Mario Muchnik, 1996 • Burger, Julian. *The Gaia Atlas of First Peoples*. Londres, Gaia Books Ltd, 1990 • *Encyclopaedia Universalis*. Paris, Encyclopaedia Universalis France, 1980 • *Atlas de L'Humanité*. Paris, Éditions Solar, 1983 • Malherbe, Michel. *Les Langages de L'Humanité*. Paris, Éditions Seghers, 1983